

Antxiñako fotografixia

Txarriduneko atia

Ondo ezaguna izan zan, ba, hainbat jeneraziño oñatiarrendako Kale Barriko **Txarriduna** tabernia! XX. gizaldixaren hasieran zabaldu eben Goierrri aldetik Oñatira etorrittako familixa batek. Zaldibiako **Juan Joxe Sukia** zan aitta, eta Gaintzako **Martina Garmendia** ama. Seme-alaba batzuk bazittuain hona aillegau aurretik, eta beste asko gure herrixan jaixo ziran. Hamaika anai-arreba danera, sei mutil eta bost neska. Tabernia ez ezik, karnazerixia be ifiñi euen lokal berian, aitta tratantia zan-eta. Txarrixak be hazten zittuain, orain **Zubialde** alkartia daguen behelalde horretan, Ramon Irizar kalian. Eta hortik etorkixon izena taberniari eta etxe guztiari. Etxiori aurretik **Fundadoriarena** moduan ezaguketan zan, herriko tradiziño batek dixuenez, hor jaixo zalako XV. mendeko bigarren erdialdixan **Rodrigo Mercado Zuazola** obispo eta mezenas famaua, hau da, Oñatiko unibersidadiaren fundatzaillia. Ateburuan agiri dan armarrixak hori gogoraketan dosku. Avilako apezpikuaren eskudo hori dozenaka lekutan ikusi geinke parroki-xako klaustruan eta Zuazolaren kapillan nahiz unbersidadeko kanpokalde eta barrukaldean. Kale Barrixa bera be Zuazola kalia izan zan XX. gizaldiko sei bat hamarkadatan.

Sukiatarrak etxe horretan errentero lez jarri ziran bizi izaten, nahiz eta gerora etxia erosteko aukeria izan. Sasoi haretako **jabiak Artazkotarrak** ziran, plazako palaziokuak, laister Martínez de Irujo bihurtuko ziranak, Sotomayorreko dukia Ana Maria Artazkoz Labaien maiorazkiariarekin 1910ian ezkondu zanian. Oso taberna popularra izan zan beti Txarriduna. Izan be, azkenengo urtiantan ohitturak eta ibillerak dezente aldatu diran arren, orduan Kale Barrixak eta Atzeko kaliak moldaitten euen taberna-zirkuituaren ardatzik nagusixena. Eta kontuan izanda Txarridunak **kale bixetatik** eukala sarreria, ez eukan bezero-faltarik. Atzeko kaletik zuzenian sartzen zan tabernara; Kale Barrittik, barriz, bebarrutik pasau bihar izaten zan tabernara heltzeko, argazkixan agerketan dan atetik aurrera fanda, hain zuzen be. Ate honen ezkerretara beste sarrera bat eguen zuzenian harategira emuten ebena. Baiña etzan kokapena bakarrik, bezerixia zainddu egin bihar izaten da-eta. Tabernia izatiaz gaiñera, **Txarriduna jatetxia** be bazan. Hamaika, frittada, afari-merienda, despedida eta bes-telako otordu egitten zan beheko tabernan edota lehenengo pisuan eguen jan-gelan, komedorian. Kuriosidade moduan aittatu daigun hiru: ferixa-egunetan baserrittarrak illunkaran egitten zittuaiñak; norbait hiltten zanian, astebetera ospaketan ziran ondrak ondraitteko goiz-erdixan egitten ziran jatorduak; edota plazako palazianuaren errentero ugarixak urteroko zorra pagaittera etorten ziranian, ugazabak ordaiñetan emuten osten armozu-bazkarixak.

Baiña eguneroko fan-etorrixan be makiñatxo bat herrittar eta kanpotar pasaitten zan Txarridunetik. Kolore batekuak eta bestekuak, auzokuak eta urriñagokuak. Txoferrak, errekadistak eta bestelakuak. Goguan dakogu **Pepita Urzelai, Juanito Sukiaren** andriak, eta honein alabiak **Doritak** zela hartzen eben mundu guztia. Aurretik letxe, Txarriduna hamaika pasadizo eta gertaeren testigu izan zan gerra ostian be, azkenian 1972xan itxi zan arte. Gaztiaguai gogoratuko nosteke, gaur egungo San Migel kooperatiban sartzen diranian, aittatu dittugun kontu horreik noizian behin kontuan izan degixela.

J. E.

Fotografixia Ricardo Bastida arkitekto bilbotar ezagunak ataratakua da XX. mendeko lehenengo hamarkadatan eta bere familixiaren bidez eskuratu dogu. Argibidiak Dorita Sukiak eta Pedro Agirrek emun doskue. Milla esker danoiri!

